



FORU DEKRETUA

Gizarte Politiken Saila
Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailtza Zerbitzua
Esp. zk.: xxx

Otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretua indargabetzea

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan gizarte zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea du helburu. Horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautzen eta antolatzen du. Lege horrek beste arauketa bat eman zien arlo horretako erregistroei, eta erakunde publiko eta pribatu guztiak eta haien menpeko zerbitzu eta zentro guztiak erregistratu beharra ezarri zuen 50. artikuluan, izan horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte ala ez.

Gizarte zerbitzuen esparruan erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen artean eskumenak banatzeko araubidea honako hauetan dago ezarrita: Autonomia elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira lurraldeetako foruzko ihardutze erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea (Lurralde Historikoen Legea) eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea. Horien arabera, Eusko Jaurlaritzak erregelamenduak egiteko ahala du gizarte zerbitzuen arloan, bereziki, gizarte zerbitzuak antolatzeko, erregistroa arautuz, eta lurralde historikoetako foru organoek beren lurraldeen eremuan erregelamenduak egiteko ahala dute, gizarte zerbitzuen arloan beren zerbitzuak antolatzeko, bai eta Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa arautzeko eta mantentzeko ere.

Gizarte Zerbitzuen Erregistroei buruzko uztailaren 24ko 155/2012 Dekretuak eguneratu eta sistematizatu egiten du gizarte zerbitzuen erregistroen arauketa espezifikoa, eta, horretarako, xedapen berri bat du 40/1998 Dekretuari dagokionez. Dekretu hori, 3.2 artikuluan Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra Eusko Jaurlaritzari atxikitzeari buruz xedatutakoa izan ezik, berehala, zuzenean eta osorik aplikatu behar zaie gizarte zerbitzuen foru erregistroei, eta araututako gaia agortzen du.

Arabako Foru Aldundiari dagokionez, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak eta abenduaren 5eko 12/2008 Legeak gizarte zerbitzuen arloan bere zerbitzuak antolatzeko aitortzen dioten erregelamenduak egiteko ahala baliatuz, Gobernu Kontseiluaren otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortu zen, eta haren antolaketa nahiz funtzionamendu arauak zehaztu ziren. Dekretu hori onetsi ondoren onetsitako araudi guztiak nabarmen gainditu dute foru dekretu hori, eta, beraz, 155/2012 Dekretua zuzenean aplikatzeko denez, beharrezkoa da aipatutako foru dekretu arautzailea berariaz indargabetzea, aplikatu beharreko araudia zein den argitzeko.

Foru dekretu hau izapidetzean, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako arauketa onaren printzipioak bete dira. Horrenbestez, adierazitako guztiagatik, behar bezala justifikatuta dago berariazko indargabetzearen beharra, eta, gainera, araugintza jarduera proportzionatua da, segurtasun juridikoaren printzipioaren berme osoarekin garatua; izan ere,



ordenamendu juridikoan nahitaez sartu beharra ez ezik, hura ematen duen organoaren gaikuntza ere arrazoituta geratu da.

Gardentasun printzipioari dagokionez, bermatuta geratzen da, eta ez da derrigorrezkoa aldez aurreko kontsulta publikoaren izapidea egitea; izan ere, 6/2023 Foru Dekretuaren 10. artikulua c), d) eta g) letretan xedatutakoa aplikatuz, ez da izapide hori egin behar «jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez dagoenean», «hartzaileei betebeharrak garrantzitsurik ezartzen ez zaienean» edo «goragoko araudi juridiko baten egokitzapenak direnean». Foru dekretu honen bidez egin nahi den indargabetzeak argitasuna eta segurtasun juridikoa eman nahi dio foru erregistro bati; izan ere, foru erregistro hori arautzea Eusko Jaurlaritzari bakarrik dagokio, eta, hala, ondorioz gabe utzi behar da foru administrazioak berak aurretik egindako arauaketa.

Horregatik guztiatik, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretua indargabetzea

Berriaz indargabetzen da Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen duen otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretua, antolamendu eta funtzionamendu arauak xedatzen dituen, bai eta foru dekretu honetan araututakoaren aurka jotzen duten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro Gonzalez Vicente

Diputatu nagusia

Diputado general

Gorka Urtaran Agirre

Gizarte Politiken Saileko Diputatua

Diputado de Políticas Sociales



Miren Saratxaga De Isla
Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
Directora de Servicios Sociales